

LEMOAKO UDALA

IRAGARPENA, Zubiateko industria alorrean hiri-gintza plangintzako ordezko arauak zati baten aldatzeko espedienteari hasierako onarpena eman zaiola jakinarazteko dena. 1081

IRAGARPENA, Mendietako industria alorrean hiri-gintza plangintzako ordezko arauak zati baten aldatzeko espedienteari hasierako onarpena eman zaiola jakinarazteko dena. 1082

LASARTE-ORIAKO UDALA

IRAGARPENA, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Burunzpe Berri S-4 Sektoreko Plan Partzialaren hasierako onarpenari buruzkoa. 1083

IRAGARPENA, R-4 Atsobakar Poligonoa Urbanizatzekeo Proiektuaren Aldaketaren behin-betiko onarpenari buruzkoa. 1083

Xedapen Orokorrak**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA****453**

AGINDUA, 1994ko urtarrilaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, irakasleak alfabetatu edota euskalduntzeko programa (IRALE) arautzen duena.

10/1982 Oinarri-legeak, euskararen erabilera normaltzekoak, honela ezarri zuen bere 20. atalean: Jaurlaritzak, euskarazko ikasbidea egiazkoa izan ahal izateko, irakasleak urratsez urrats euskalduntzeko baliabideak ezarriko zituela.

Oinarri-lege horren garapenez, bai 138/1983 Dekretuak eta bai 1983ko abuztuaren 1eko Aginduak (EHAA, abuztuak 19) eskubide hori hezur-mamitu ahal izateko arauzko markoa ezarri zuten. Hori dela eta, Euskal Autonomi Elkarteke ikastetxeetan irakaslanean diharduten maisu-maistrak euskaldundu edota alfabetatzeko urteroko prestakuntza-programa eratu zen.

Urte hartan bertan, 1983ko abenduaren 26ko Aginduz, irakasleak euskaldundu edota alfabetatzeko IRALE-programa arautu zuen Hezkuntza Sailak. Urterik urte, etenik gabe, mamitu izan da programa hori egungo egunerarte.

Hamar urte joan dira ordutik hona. Bai Euskal Eskola Publikoaren Legeak, bai Euskal Autonomi Elkarteke unibertsitateaz besteko irakasle-kidegoen Legeak eta bai horien garapenez sorturiko araubideak aldaketa ohargarriak eragin ditu oraindaino indarrean egondako marko horretan: euskal hezkuntza-adminis-

AYUNTAMIENTO DE LEMOA

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del Expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico, en el Area Industrial de Zubiate. 1081

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico, en el Area Industrial de Mendieta. 1082

AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

ANUNCIO sobre aprobación inicial correspondiente al «Plan Parcial de Buruntzpe-Berri Sector S-4» de las Normas Subsidiarias de Planeamiento. 1083

ANUNCIO sobre aprobación inicial correspondiente a la «Modificación del Proyecto de Urbanización del Polígono R-4 Atsobakar». 1083

Disposiciones Generales**DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION****453**

ORDEN de 28 de enero de 1994, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el programa IRALE, de capacitación idiomática del profesorado.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera dispuso, en su artículo 20, que el Gobierno, a fin de hacer efectivo el derecho a la enseñanza del euskera, establecería los medios tendentes a una progresiva euskaldunización del profesorado.

Desarrollando dicha Ley Básica, tanto el Decreto 138/1983 como la Orden de 1 de agosto de 1983 (BOPV del 19 de agosto) establecieron el marco normativo necesario para hacer efectivo tal derecho, y pusieron las bases para la ejecución anual de los programas de formación y capacitación idiomática del profesorado que ejerce la docencia en centros escolares de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ese mismo año, por Orden de 26 de diciembre de 1983, el Departamento de Educación reguló el programa de capacitación idiomática del profesorado (IRALE), programa que, desde entonces, se ha venido desarrollando ininterrumpidamente en planes anuales.

Pasados diez años, tanto las recientes leyes de la Escuela Pública Vasca y de los Cuerpos Docentes de la enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como la normativa de aplicación dictada en desarrollo de dichas leyes, introducen en el marco hasta ahora vigente variaciones significativas, como la

trazioaren esparrupeko irakasleen hizkuntz eskakizunak aipatu behar dira hemen bereziki. Azken hamar urte hauetako eskarmentuak ere badu zer erakutsirik irakasleak euskalduntzeko programa beharizan berrietara egokitzeko orduan.

Honako Agindu honek 1983ko abenduaren 26ko Agindua eta bere ondoriobidezko aldaketak indargabaturik uzten ditu, haien ordezkotza eginez. 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduak bezala (EHAA, 1994/1/26) egoera berriaren beharretara egokitu nahi du honek ere IRALE programa, bertako irakastegiei egungo legeriak herri-ikastetxeei ematen dien antzeko eratze-modua eskainiz.

Ezin ahaztu daiteke, bestalde, helduak euskaldundu edota alfabetatzeko aukerabide zabala dugula gaur egun eskuera Autonomi Elkartean. Aukera horretaz eskuabalik baliatzea komeni da, alferrikako bikoizketak sortzen ibili gabe. Beraz, eta IRALE programaren ekintza guztiak bere irakastegi propioez estaltzen ez direla kontuan izanik, zenbait ikastaro-mota (behereneko mailetakoak eta irakastorduz kanpokoak batez ere) bestelako euskaltegi eta ikasketa-elkarteen bidez mamituko dira. Agindu honek, hori dela eta, euskaltegi-elkarte horien eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko harreman-bideak ere arautzen ditu orohar.

Guzti horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. *atala.* - Agindu honen xedea Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz besteko irakasleak euskaldundu eta alfabetatzeko IRALE programa arauberritzea da.

2. *atala.* - 1.- IRALE programaren xedea Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleak euskaldundu edota alfabetatzea da. Azken helburua, nolana ere, honako hau da: irakasle horien berariazko hizkuntz prestakuntza lortzea, legez eskatzen den trebezia eta gaitasunez euskara edo euskaraz irakatsi ahal izan dezaten.

2.- Xede horiek lortu ahal izateko ikastaro-mota eta prestakuntza-bide desberdinak eskainiko ditu IRALEk kasuan kasuko euskalduntze-beharren, lanbide-egoera desberdinen eta irakasleen abiaburuko euskal ezagueramailen arabera, kasu bakoitzean beharrezkoak gerta daitezkeen hizkuntzazko titulu, agiri edo eskakizunak eta programaren beraren antolamendu- eta aurrekontu-aukerak kontuan izanik.

3.- Aurreko atalean esandakoaren kaltetan gabe, IRALE programa martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuak ezarritako hizkuntz eskakizunak lortzeko prestakuntza-

configuración de dos perfiles lingüísticos para el profesorado dependiente de la Administración Educativa Vasca. Por otra parte, la experiencia acumulada durante estos años permite disponer de nuevos elementos de juicio para una adecuada adaptación del programa a las necesidades actuales de euskaldunización del profesorado.

La presente Orden, que deroga y reemplaza la de 26 de diciembre del 1983 y sus modificaciones posteriores pretende, al igual que la Orden de 10 de enero de 1994 publicada en el B.O.P.V. de 26-1-94, adaptar las características del programa IRALE a la nueva situación y configurar los Centros propios de capacitación idiomática del profesorado con una estructura similar a la prevista por la actual legislación para los centros docentes del sistema público.

Por otra parte, no se puede olvidar que, actualmente, en nuestra Comunidad existe una amplia oferta de posibilidades de capacitación idiomática abierta a la población adulta; oferta cuya riqueza conviene aprovechar, evitando duplicidades innecesarias. Por ello y teniendo en cuenta que la totalidad de las actividades del programa IRALE no son abordadas directamente por la red propia de centros, y que, por consiguiente, determinados cursillos -preferentemente los de los niveles inferiores y los que se desarrollen fuera del horario laboral- serán impartidos por instituciones y asociaciones de enseñanza dedicadas a la capacitación idiomática, la presente Orden regula las condiciones de colaboración entre estas asociaciones y el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Por todo ello,

DISPONGO:

CAPITULO I

CARACTERISTICAS GENERALES

Artículo 1.- Es objeto de la presente Orden proceder a una nueva regulación del programa IRALE, de alfabetización y euskaldunización del profesorado no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2.- 1.- El objetivo del programa IRALE es euskaldunizar y/o alfabetizar al profesorado que ejerce la docencia en centros de enseñanza de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, en última instancia, lograr la capacitación idiomática específica de dicho profesorado a fin de que pueda impartir, con la destreza necesaria y la cualificación exigida legalmente, clases de o en euskera.

2.- A fin de alcanzar los objetivos previstos, el programa IRALE ofrecerá diversos tipos de cursos y actividades de formación, en función de las necesidades de euskaldunización, de las diferentes situaciones profesionales y niveles previos de conocimiento del euskera del profesorado, las titulaciones, certificaciones o perfiles lingüísticos exigibles en cada caso, y las capacidades organizativas y presupuestarias del propio programa.

3.- Sin perjuicio de lo establecido en el apartado anterior, el programa IRALE se estructurará básicamente en diferentes recorridos formativos que conduzcan a la

bide desberdinen arabera antolatuko da. Prestakuntza-bide hauetariko bakoitza honako eskema hauen arabera-ko ataletan eratuko da:

– Lehen, bigarren eta hirugarren atalak, lehen hizkuntz eskakizuna lortzeko.

– Laugarren eta bosgarren atalak bigarren hizkuntz eskakizuna lortzeko. Bosgarren atal horrek, bere luze-zabalean, ikastetxeetako praktika-aldia izango du.

3. atala.– 1.– IRALE programak Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz besteko ikastetxeetan, publiko zein pribatu eta edozein irakasmilakoetan, lanean diharduten irakasleak hartuko ditu kontuan.

2.– Aurreko atalean adierazitako edozein irakaslek IRALE programan parte hartu eta bere zerbitzu-aukeraz baliatu ahal izango du, prestakuntza-ekitaldi bakoitzera-ko ezarriko diren baldintza konkretuen arabera.

3.– Unibertsitateaz besteko ikastetxe publiko zein pribatueta-ko irakasleentzat prestaturik dago, bereziki, IRALE programa. Hizkuntz eskakizunak egiaztatu behar-ean legokeen irakas-sistemako laguntza- eta ebalua-zio-ataleko gizajendeak ere bertan parte hartu ahal izango du: deialdi bakoitzean ezarriko da, nolahi ere, azken hauek zein baldintzatan parte hartu ahal izango duten IRALE programan.

4. atala.– 1.– IRALE programak doan eskainiko dizkie bere ikastaro-emankizunak bertan izena eman deza-ketenei. Salbuespen bakarrak egoitza- eta joan-etorri gastuak izango dira batetik, eta Hezkuntza, Unibertsita-te eta Ikerketa Sailak ikasketen aprobetxamendu ego-kiaz ezar ditzakeen mugak bestetik.

2.– Irakastordu barruko ekintzen gastuak Hezkun-tza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kontu joango dira partez edo osoz, beronek zehaztuko dituen eran eta moduan.

3.– Deialdi publiko-zein edota aurkezpen-txostenez jakinaraziko ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerta Sailak aldian aldiko ekitaldiaren baldintza konkretuak.

5. atala.– 1.– Euskal Eskola Publikoaren Legearen 22. atalak eta Euskal Autonomi Elkarteko unibertsita-teaz besteko irakas-eremuan diharduten irakasle-kide-go-en legearen 54. atalak diotenaren ildotik, irakasle-jendea euskalduntzeko urte anitzeko planak eratuko ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Ira-kastordu barnean euskaldundu edo alfabetatu behar-ean dauden irakasle-kopuruak finkatuko dira, besteak bes-te, plan horietan. Plan horiek malguak izango dira iza-tez, urtero errebisatuko dira, irakasle-beraien gogoz-ko parte-hartzea lortzen saiatuko da bertan eta, plana egiteko oinarritzko irizpide moduan, irakas-sistemaren behar-ak, hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko epe-kon-tuak eta irakasle-aldiz aurretiko euskarazko ezague-ra-mailak hartuko dira gidari.

obtención de los perfiles lingüísticos establecidos en el Decreto 47/1993, de 9 de marzo. Cada uno de estos recorridos formativos se organizará en módulos de acuerdo con el siguiente esquema:

– Módulos 1, 2 y 3, para la obtención del perfil lin-güístico 1.

– Módulos 4 y 5, para la obtención del perfil lin-güístico 2. Dentro del módulo 5 se incluirá, con carác-ter general, una fase de prácticas en centros escolares.

Artículo 3.– 1.– El programa IRALE está destinado al profesorado que ejerce la docencia en centros no univer-sitarios, públicos o privados, de la Comunidad Autóno-ma del País Vasco, cualquiera que sea el área o nivel educativo en el que ejerza su labor.

2.– Todo el profesorado a que hace referencia el apar-tado anterior que imparta clases en la Comunidad Autónoma del País Vasco tendrá derecho, de acuerdo con las condiciones concretas fijadas para cada actividad formativa, a participar en el programa IRALE y a utili-zar sus servicios.

3.– El programa IRALE está diseñado específicamente para el profesorado de los centros docentes no univer-sitarios, públicos o privados. Igualmente estará abierto al personal de apoyo y evaluación del sistema educativo que deba acreditar determinados perfiles lingüísticos y que podrá tener acceso a las actividades del programa, en las condiciones establecidas en cada convocatoria.

Artículo 4.– 1.– Las actividades encuadradas en el programa IRALE serán gratuitas para los inscritos en dicho programa, sin más excepciones que los gastos de estancia y desplazamiento y con las limitaciones que establezca el Departamento de Educación, Universida-des e Investigación respecto al suficiente aprovecha-miento de las enseñanzas.

2.– En aquellas actividades que se impartan dentro del horario escolar, el costo total o parcial de los gastos de suplencia podrá ser asumido por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en las condi-ciones y supuestos que éste determine.

3.– Las condiciones concretas de cada programa y/o actividad formativa serán establecidas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y dadas a conocer mediante convocatoria pública y/o folleto informativo.

Artículo 5.– 1.– De acuerdo con lo establecido en el artículo 22 de la Ley de la Escuela Pública Vasca y en el artículo 54 de la Ley de cuerpos docentes de la enseñan-za no universitaria de la Comunidad Autónoma Vasca, el Departamento de Educación, Universidades e Inves-tigación elaborará planes plurianuales de euskalduniza-ción del profesorado, en los que se preverán, entre otros, los contingentes de personal a formar dentro del horario laboral. En la elaboración de los planes pluria-nuales, que tendrán un carácter flexible y serán revisa-dos anualmente, se buscará la adhesión voluntaria del profesorado y se utilizarán como criterios básicos de planificación las necesidades del sistema educativo, las fechas de preceptividad para la acreditación de perfiles lingüísticos y los niveles previos de conocimiento del euskera por parte del profesorado.

2.- Plan horien ildotik, eta ikastetxeen epe labur eta ertainerako beharrak eta aukerabideak kontuan izanik, Hezkuntza Sailordetzak prestakuntza-bide bakoitzean begiz jotako eskaintza-aukerak, eta (hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko fetxa-kontuen arabera) bide bakoitzera sartzeko lehentasunak ezarriko ditu urtero-urtero.

3.- IRALE programaren baitako prestakuntza-jardura desberdinak lurraldeka edo eskualdeka eratuko dira, ikasketari-nahien eta irakaste-aukeren arabera eta lurralde bakoitzeko euskalduntze-beharrak kontuan izanik.

6. atala.- Aurreko atalean ezarritako xede horiek hezur-mamitu ahal izateko honako puntuok zehaztuko ditu urtero Hezkuntza Sailordetzak, eta behar den aurretiaz jakinaraziko:

a) IRALE programan parte hartu ahal izateko izena nola eman eta nola matrikulatu.

b) Ikasturtean zehar eskaintzen diren ekintza desberdinen ezaugarri nagusiak: mailak, egutegi-ordutegiak, prestaera-emankizun bakoitzaren ordu-kopurua, ikastaroa non, zer-nolako ikasketarientzat, zein euskaltegi edo ikasketa-elkartek eskaintzen duen, irakastorduz kanpokoa ala barnekoa den, bertako funtzionamenduarauak eta beste edozein xehetasun.

c) Ekintza-mota horretara lehentasunez sartu ahal izateko baldintzak: hizkuntzazkoak, ikasketari-nahien irakasmila edo lanbide-egoeraren arabekoak (zer ikastetxe-mota, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko pre-sa-kontua).

d) Ekintza-molde bakoitzean ikasketariak gutxienez lortu beharreko aprobetxamendu-maila, kasuan kasuko balioespen-sistema eta gutxiegiako aprobetxamenduen ondorioak agertuz.

e) Kasuan kasuko aprobetxamendu- edo gaitasun-mailaren ziurtapena lortzeko baldintzak.

f) Programaren funtzionamendu egokirako eta ikasketari-nahien informazio zuzenerako beharrezkoak liratekeen gainerako xehetasunak.

7. atala.- 1.- IRALEren beraren irakastegietan, normalean, irakastordu barneko prestakuntza-ikastaroak emango dira; prestakuntza-aldi horretan, ondorioz, ikasketariak ez dute irakaslanean jardun beharrik izango.

2.- Ikasketarigaiak aukeratzeko aldi-aldi ezarri ahal izango diren prozeduren kaltetan gabe, aurreko atalean adierazitako ikastaroetan parte hartu nahi dutenek konpromiso-adierazpena izenpetu beharko dute eskabide-orria betetzerakoan: ezarritako baldintzekin konforme daudela azaldu beharko dute bertan, eta ikastaro batean parte hartzeko liberatua izanez gero adinkontuagatik hizkuntz eskakizunaren exentziara bildu ahal izateko lege-aukerari beren gogoz eta espresuki uko egiten diotela aitortu beharko dute.

2.- De acuerdo con dichos planes, la Viceconsejería de Educación determinará anualmente, en función de las necesidades de los centros y de las disponibilidades de profesorado euskaldun a medio y corto plazo, la oferta prevista en cada una de las modalidades formativas, así como las prioridades de acceso a cada modalidad en función de las diferentes fechas de preceptividad para la acreditación de los perfiles lingüísticos.

3.- Los diferentes tipos de actividades formativas integradas en el programa IRALE se instrumentarán en cada Territorio o zona, de acuerdo con el número de solicitantes y la capacidad de cobertura docente, y en función de las necesidades de euskaldunización en cada Territorio.

Artículo 6.- Con el fin de desarrollar y concretar lo previsto en el artículo anterior, la Viceconsejería de Educación fijará anualmente los siguientes datos, haciéndolos públicos con la suficiente antelación:

a) Procedimientos de inscripción y matrícula para participar en el programa IRALE.

b) Principales características de las diversas actividades que se ofertan a lo largo del curso: niveles, calendario y horarios, número de horas de cada actividad, lugar(es) en que se realizan, tipología de cursillistas a los que van destinadas, Centros o asociaciones que ofrecen dichas actividades, impartición dentro o fuera del horario laboral, normas internas de funcionamiento y cualesquiera otras que considere necesarias.

c) Condiciones requeridas para el acceso a cada tipo de actividad para hacerlo con carácter prioritario; entre otras, las idiomáticas y las que se refieren a niveles educativos y situaciones profesionales de los candidatos (Centros o proximidad de la fecha para acreditación del perfil correspondiente).

d) Nivel de aprovechamiento mínimo fijado para los cursillistas según los diversos tipos de actividad, indicando los correspondientes sistemas de valoración y las posibles consecuencias de un aprovechamiento insuficiente.

e) Condiciones para la obtención del correspondiente certificado de aprovechamiento o cualificación alcanzada.

f) Cuantos otros datos considere necesarios para el correcto funcionamiento del programa y la información de los interesados.

Artículo 7.- 1.- Las actividades de formación que se impartan en la red propia de Centros de capacitación idiomática se desarrollarán, como regla general, dentro de la jornada laboral de los docentes; en consecuencia, los cursillistas que participen en ellas dejarán de ejercer, durante ese período, su docencia habitual.

2.- Sin perjuicio de los procedimientos que se puedan establecer en cada caso para la selección de los candidatos, quienes deseen tomar parte en los cursos a los que se refiere el apartado anterior deberán firmar, al efectuar la solicitud de admisión, el correspondiente compromiso de conformidad con las condiciones establecidas, renunciando voluntaria y expresamente a la posibilidad legal de acogerse a la exención de acreditación de perfil lingüístico por motivo de edad, en caso de acceder a la liberación.

8. *atala.* - 1.- Ikasketarigaiak aukeratzera, aldiaren aldian irizpideak kontuan hartuko dira: horien artean izango dira, besteak beste, dagoeneko lorturik duten euskal ezaguera-maila, txandaz txandako aurrerabidea eta hizkuntza eskakizuna egiaztatze azken egunaren hurbiltasuna.

2.- Hezkuntza Sailordetzak ikasketari-nahien lehen-tasan-gogoak, ikastaroak noiz-non egiteari buruzkoak, kontuan hartuko ditu eginahalean. Ikastalde egokiak eratu eta ikasketari-plazak erarik probetxuzkoenean erabili ahal izateko, dena den, egoki lerizkiokeen aldatketak egin ahal izango ditu.

II. ATALBURUA

IRAKASTEGIEN AGINTE-ORGANOAK

9. *atala.* - 1.- IRALE programaren baitako ekintzak garaiz eta zuzen bideratu ahal izateko beharrezko neurriak hartuko ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Batez ere goren mailako ikastaro-atalez arduratuko diren irakastegi propioak izango ditu horretarako, batetik; bestetik, berriz, Hezkuntza Sailaz kanpoko erakunde eta ikasketa-elkarteen lankidetzaz baliatu ahal izango da.

2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakastegi bana izango du, gutxienez, lurralde historiko bakoitzean. Kasuan kasuko beharren edo aukeren arabera, gainera, lurralde edo eskualde mailako irakastegiak, edota xede berezikoak, eratu ahal izango ditu.

3.- IRALEko irakastegiak behar adinbat irakaslez hornituko dira. Hornitze-lan hori Euskal Autonomi Elkarteak unibertsitateaz besteko irakasle-kidegoen 2/1993 Legeak ezarritakoaren ildotik egingo da: bertarako irakasleak irakasmala desberdinetakoak izan ahal izango dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren esparrupèkoak eta kasuan kasuko deialdiaren baldintzak betetzen dituztenak. Zerbitzu-beharren arabera, administrazio-langilerik ere izan ahal izango du irakastegiak.

10. *atala.* - 1. Agindu honek zehazten dituen IRALEko irakastegiek honako organo-atal hauek izango dituzte gutxienez:

- a) Lagun bakarrekoak:
 - Zuzendaria
 - Ikasketa-burua
 - Idazkaria
- b) Taldekakoak:
 - Irakasle-klaustroa
 - Zuzendaritza-taldea
 - Irakastegian parte hartzeko batzordea (hots, partaidetza-batzordea)

2.- Irakastegi bakoitzaren antolamendu- eta funtzio-

Artículo 8. - 1.- En los procesos de selección de candidatos se tendrán en cuenta los criterios establecidos en cada caso, y entre ellos se contemplarán el nivel de conocimientos alcanzado o la progresión conseguida previamente por los candidatos, así como la proximidad de la fecha para la acreditación del perfil lingüístico.

2.- La Viceconsejería de Educación tendrá en cuenta las preferencias mostradas por los solicitantes respecto a los lugares o fechas (turnos) en principio previstas. En todo caso, se reservará la facultad de efectuar los cambios precisos a fin de garantizar la formación de grupos adecuados y utilizar las plazas de la forma más provechosa.

CAPITULO II

ORGANOS DE GOBIERNO DE LOS CENTROS DE CAPACITACION IDIOMATICA

Artículo 9. - 1.- El Departamento de Educación, Universidades e Investigación establecerá los medios necesarios para garantizar la correcta ejecución de las actividades previstas en el programa IRALE, contando para ello con una red propia de Centros de capacitación idiomática que prioritariamente atenderá a los módulos finales, así como con la colaboración de instituciones y asociaciones de enseñanza ajenas al Departamento.

2.- El Departamento de Educación, Universidades e Investigación contará al menos con un Centro propio de capacitación idiomática en cada Territorio histórico, pudiendo además, en función de las necesidades y posibilidades, organizar otros centros de ámbito territorial o comarcal, o de carácter especializado. Estos Centros dependerán de la Dirección de Renovación Pedagógica.

3.- Los centros de capacitación idiomática del programa IRALE estarán dotados del profesorado necesario, y su provisión se efectuará de acuerdo con lo establecido por la Ley 2/1993 de Cuerpos Docentes de la enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de entre el profesorado de los diferentes niveles educativos, dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación que cumpla los requisitos establecidos en la convocatoria correspondiente. Igualmente podrá contar con personal administrativo, de acuerdo con las necesidades del servicio.

Artículo 10. - 1.- Los centros de capacitación idiomática del programa IRALE a los que se refiere esta orden estarán dotados como mínimo de los siguientes órganos:

- a) Unipersonales:
 - La dirección.
 - La jefatura de estudios.
 - La secretaria.
- b) Colegiados:
 - El claustro de profesores-profesoras.
 - El equipo directivo.
 - La comisión de participación del Centro.

2.- El reglamento de organización y funcionamiento

namendu- araudiak, goiko horiezaz gainera, bestelako organo-atalak ere eratu ahal izango ditu.

11. atala. - 1.- Zuzendaria irakastegiaren batez-beste- jostioaren eta funtzionamendu osoaren arduraduna da; bereziki, bertako irakaslanaren arduraduna.

2.- Zuzendariaren eginkizun dira:

a) Irakastegiaren ordezkartza ofiziala bere gain hartzea.

b) Irakastegiaren jarduna zuzendu eta koordinatzea; bertako ekintza akademikoetarako eta taldekako organoen bileretarako dei egin eta bertako buru izatea.

c) Aurrekontuen arabera, gastuetarako baimena eman eta ordainketak egitea agintzea.

d) Dagozkion zerbitzu- eta hornikuntza-kontratazioak egitea.

e) Ziurtagiri eta dokumentu ofizialen onikusia egitea.

f) Irakastegiaren jardupideari dagozkion arauak, xedapenak, proiektu-programak eta erabakiak betearaztea.

g) Irakastegiko gizajende guztiaren buruzagi izatea.

h) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aginte-organoen ordezkari gisa legezkiokoenak; bestelako araubidez ezarritakoak eta irakastegiaren beraren antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak finkaturikoak.

12. atala. - Ikasketa-buruari irakaslanaren mami-kuntza koordinatu eta zaintzea dago, irakastegiko zuzendaritza-taldeak onarturiko irizpideen arabera honako eginkizunok izango dituelarik:

a) Irakaslanerako programaren eta bere garapenaren prestakuntza koordinatzea.

b) Ikasketa-ordutegia osatu eta betearaztea.

c) Irakasle bakoitzari dagozkion eginkizunak eta lan-taldeak zehaztea.

d) IRALE programan daudelarik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaz kanpoko euskaltegi edo ikasketak-elkarteetan ari diren ikasle-taldeen jarraipena eta gainbegiratze-lana egitea.

e) Irakastegiko antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak eta arauzko erabakiek ezarritakoak.

13. atala. - Idazkariaren eginkizunak honako hauek dira:

a) Irakastegian parte hartzeko batzordearen, zuzendaritza-taldearen eta klaustroaren bileretako gaitzerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, kasu kasuko buruak esandakoaren arabera. Bileren aktak egitea prestatzea.

b) Irakastegiko aktak, espedienteak eta dokumen-

propio de cada centro de capacitación idiomática podrá prever, además de los anteriores, la existencia de otros órganos distintos a los especificados.

Artículo 11. - 1.- El director es el responsable de la gestión general y el funcionamiento del centro, en particular de su actividad docente.

2.- Corresponde al director:

a) Ostentar la representación oficial del centro.

b) Dirigir y coordinar el funcionamiento del centro; convocar y presidir los actos académicos y las reuniones de los órganos colegiados del centro.

c) Autorizar los gastos y ordenar los pagos, de acuerdo con el presupuesto.

d) Realizar las contrataciones de servicios y suministros que le correspondan.

e) Visar las certificaciones y documentos oficiales.

f) Hacer cumplir las normas, disposiciones, proyectos y programas de actuación y los acuerdos que afecten a la actividad del centro.

g) Ejercer la jefatura de todo el personal adscrito al centro.

h) Las demás competencias que se deleguen por los órganos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación; las que se le atribuyan por otras normas y las que se le asignen en el reglamento de organización y funcionamiento del centro.

Artículo 12. - El jefe de estudios es el órgano encargado de coordinar y vigilar directamente la ejecución del programa de actividades docentes, correspondiéndole las siguientes funciones, de conformidad con los criterios aprobados por el equipo directivo del centro:

a) Coordinar la elaboración del programa de actividades docentes y su desarrollo.

b) Confeccionar los horarios académicos y vigilar su cumplimiento.

c) Asignar a cada profesor las tareas y grupos de trabajo que le correspondan.

d) Efectuar el seguimiento y la supervisión pedagógica de los grupos de alumnos liberados del programa IRALE que reciban enseñanzas en Euskaltegis o asociaciones de enseñanza no dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

e) Las funciones que las disposiciones normativas y el reglamento de organización y funcionamiento del centro le encomienden.

Artículo 13. - El secretario tendrá las siguientes funciones:

a) La preparación de los asuntos que hayan de ser incluidos en el orden del día de las sesiones de la comisión de participación del centro, del equipo directivo y del claustro, de conformidad con lo que establezca el presidente de dichos órganos. Y levantar acta de las sesiones de estos órganos.

b) Custodiar las actas, los expedientes y la documen-

tuak zaintzea, kasuan kasuko organoak eska ditzanerako prest izanik. Bertako ikas-materiala zaintzea.

c) Zuzendariaren ontzat emanaz irakastegiko ekin-tza-erabaki eta akordio guztiak ziurtatzea; orobat bertako aurrekari, liburu eta dokumentuak.

d) Arauzko erabakiek eta irakastegiaren antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak ezarritako eginkizunak betetzea.

14. atala. - 1.- Irakastegian lanean diharduten irakasle guztiak osatuko da bertako klaustroa, zuzendaria buru delarik.

2.- Klaustroaren eginkizunak honako hauek dira:

a) Ikas-ekintzen programa prestatu eta onartzea, eta noraino betetzen ari den adieraztea.

b) Ikasketarien ebaluazio- eta errekupeazio-lanetarako irizpideak finkatu eta koordinatzea.

c) Ikasketarien orientazio- eta tutore-lanak planifikatu eta zuzentzea.

d) Irakastegian pedagogiazko saiakuntza edo ikerketak eragitea.

e) Bere funtzionamendu-arauek onartzea.

3.- Irakasle-klaustroak erabakiko du irakastegian parte hartzeko batzordera zer ordezkari bidali.

